

AUTOEBALUAZIOA (8. GAIA)

1. Zein bero-trukagailu motan erabili behar da F zuzenketa faktorea?

- A Karkasa eta hodi erakoan
- B Xaflazkoan
- C Trinkoan
- D Hodi bikoitzekoan

2. Zein jariakin elikatzen dira barruko hodietatik?

- A Jariakin zikinak
- B Jariakin likatsuak
- C Jariakin hotza
- D Jariakin beroa
- E Jariakin korrosiboak

3. Fluxu paraleloan fluido beroa eta hotza bero-trukagailuaren alde beretik sartzen dira, eta noranzko berdinean mugitzen dira.

- A Egia
- B Gezurra

4. **Jariakin beroa 160 °C-tan sartzen da eta 90 °C-tan irten.** Jariakin hotza aldiz, **20 °C-tan sartu eta 80 °C-tan irteten da.** Kontrakorrantean lan egiten bada, zein da batez besteko tenperatura logaritmikoaren diferentzia?

5. Zer esan nahi du 2-4 konfigurazioak?

- A 2 hodi eta 4 karkasako bero-trukagailua.
- B 2 iraganaldi karkasatik eta 4 iraganaldi hodietatik.
- C 2 iraganaldi hodietatik eta 4 iraganaldi karkasatik.
- D 2 karkasa eta 4 hodiko bero-trukagailua.

6. Bero-trukagailu trinkoek bolumen handia hartzen dute eta beraz, ez dira egokiak espazio txikientzako.

- A Egia
- B Gezurra

7. Zein motatako bero-trukagailuetan erabiltzen dira trenkadak jariakinaren mugimendua bideratzeko?

- A Hodi eta karkasa erakoan
- B Hodi bikoitzekoan
- C Xafla erakoan
- D Trinkoetan



8. Zein hipotesi hartzen dira kontuan bero-trukagailuen diseinua burutzeko?

- A Bero espezifikoen balio konstanteak hartzen dira.
- B Bero-trukagailua guztiz isolatuta dago.
- C Hipotesiak bero-trukagailu mota bakoitzaren arabera aldatzen dira.
- D Kondukzio axiala mesprezagarria da.
- E Bero fluxua egoera ez egonkorrean dago.

9. Fluxu paraleloan fluido hotzaren tenperaturak inoiz ez du fluido beroarena gaitutuko.

- A Egia
- B Gezurra

10. Zein trukagailu-mota da erabilienetarikoa elikagaien industrian?

- A Karkasa eta hodi erakoa
- B Hodi bikoitza
- C Trinkoa
- D Xaflazkoa